


Berotze globala: lurzoru-tenperatura altuetan gertatzen den landare-erresistentziaren inaktibazioa lehengoratzea

Izurriteek eta gaixotasunek askotan kaltetzen dituzte landare-laboreen ekoizpenak, uzta eta kalitatea galaraziz, eta horrek ekoizleek diru-sarreraren segurtasunik ez izatea dakar. Sustrai-korapiloen nematodoek (RKN) —har-itxurako parasito mikroskopikoak— labore ugariaren ekoizpenari eragiten diote. Tomatearen eta piperraren kasuan, RKNekiko erresistenteak diren barietateak erabiltzea da kontrol-estrategia jasangarrietako eta ekonomikoki bideragarrietako bat. **Hala ere, berotze globalak arriskuan jartzen du kontrol-bitarteko hori, lurzoruaren tenperatura altuen ondorioz laboreen erresistentzia-gene batzuek eraginkortasuna galtzen baitute.** Hori gertatu zaio tomatearen erresistentzia-gene garrantzitsu bati (*Mi1.2*), gene hori daraman tomate landareak RKNetatik babesteko eraginkorra izateari uzten baitio lurzoruaren tenperatura 28 °C-tik gorakoa denean, eta landareen patogenoa, berriz, gai da lurzoruaren tenperatura altu horiek jasateko. Beraz, berotze globalak ustekabeko albo-ondorio bat du: mehatxu handia da tomate-ekoizpenarentzat, batez ere Mediterraneoko herrialdeetan.

NEM-EMERGE proiektuan, RKNekiko erresistenteak diren tomate-barietate termoe gonkor berriak garatuko dira. Izurriteen eta gaixotasunen aurkako **erresistentzia-geneei egonkortasun termikoa ematen dieten mekanismo** molekular eta fisiologikoak ikertzen ari gara, eta ezagutza hori aplikatzen **etorkizun hurbilean tomate-barietate berriak lortzeko; termoe gonkorrak eta espektrio zabalean erresistenteak izango dira, bai eta baratzegaintza-balio handikoak ere.**

Laburbilduz, beroketa globalak gaur egun eragiten duen erronka garrantzitsu bati helduko diogu, eta **tomate-landareek tenperatura altuan sustrai-korapiloen nematodoekiko duten erresistentziaren eraginkortasuna lehengoratuko dugu.**



1. irudia: Tomatea sustrai-korapiloen nematodoetatik babesten duen *Mi* erresistentzia (ezkerrean), berotze globalak arriskuan jartzen du babes hori (erdian), NEM-EMERGEk landare ostalarien erresistentziaren ezegonkortasun termikoa konpontzeko moduak garatzen dihardu (eskuinean).

EGILEA(K)

Carolina Escobar

Karin Posthuma

HERRIALDEA/ESKUALDEA

Europa (Espainia, Herbehereak)

nem-emerge.eu



Funded by
the European Union

Funded by the European Union under G.A. NO 101083727. Views and opinions expressed are however those of the author(s) only and do not necessarily reflect those of the European Union or European Commission. Neither the European Union nor the European Commission can be held responsible for them.